



BIZIPOZA

2020 URTEKO MEMORIA

1. HITZAURREA

Jarraian aurkezten dugun txosten honek, Bizipoza Elkarteak 2020 urtean aurrera eramandako ekimenen berri ematea du helburu. Egitasmo hauek aurrera eramatea, zuen laguntzak, elkarlanak ere egin du posible, guztion arteko elkarlan honen ondorio da Bizipoza aurrera eramaten ari den ibilbidea. **Guzti honegatik beraz, mila esker bihotz-bihotzez, Bizipoza elkartearen izenean.**

Txosten hau ondorengo atalez osatzen da:

- **Bizipozaren funtzioa: Izaera, misioa eta bisioa**
- **Bizipozaren helburu nagusiak**
- **Bizipozako elkarteak, bazkideak, babesleak eta boluntario sarea.**
- **Bizipozaren egitasmo ildoak eta 2020 urtean aurrera eramandako ekimenak**

BIZIPOZAREN FUNTZIOA: IZAERA, MISIOA ETA BISIOA

- Bizipoza irabazi asmorik gabeko **gizartegintza egitasmoa** da: izaera bereziko gaiak lantzen dituzten eta haur eta familien ongizatea helburu duten elkarteei elkarteei laguntza afektiboa eta materiala eskaintzea du xede eta elkarte , haur eta familia hauek transmititzen dituzten baloreak jasoaz aberastu, hezi eta gizarteratzea.
- Bizipoza-k **bizipoza** du misio: hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarteekin batera poza partekatzea, euskaraz eta sorkuntzatik. Elkarte guzti hauek transmititzen dituzten baloreak gizarteratzea da bizipozaren misioa.
- Bizipoza-k **auzolana** du bisio: deneriko herritar, talde eta erakundeek osaturiko bolondres-sarea osatzea gizartegintzaren poza bizitzeko.

Euskaraz elkartasuna sustatu nahi dugu auzolanaren bidez bizipoza nagusitu dadin.

BIZIPOZAREN HELBURU NAGUSIAK

- Izaera bereziko gaiak azalaraztea ume zein heldu euskararen bidez sentsibilizatuz.
- Errealitate horiek lantzen dituzten elkarteei laguntza afektiboa ez ezik, eguneroko lanerako dituzten premiei erantzuteko baliabide funtzionalak lortzeko laguntza eskaintzea.
- Gizartegintzan euskaraz eta bizipozez jardun nahi duten herritarrei auzolan egitasmo eraginkorra eskaintzea, boluntario sare bat osatuaz.

BIZIPOZA-KO ELKARTEAK, BAZKIDEAK ETA BOLUNTARIOAK.

Ondokoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako ELKARTEAK:

Bizipozako elkarteak gaur-gaurkoz 35 dira, guztiak izaera bereziko gaiak lantzen dituzten elkarteak, haurren eta familien ongizatea helburu duten elkarteak. Elkarteak Bizipoza-ren balore transmisoreak dira, Bizipoza eta bertako kideak baloreetan aberastu eta hezten dituztenak.

Elkarte anitzak Bizipozako partaide izateak elkarteen arteko ezagutza eta elkar laguntza ere bultzatzen du, elkarlanak ematen duen indarrak elkarteen lana eta ezaugarri bereziak gizartera ezagutarazteko baliatuz.

Ondokoak dira, gaur gaurkoz, Bizipoza-ko kide diren 34 elkarteak:

- 1.- ADEMG: Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkartea
- 2.- AFESTA: Euskadiko Tourette Syndromearen eta bestelako osasun-arazoen familien Elkartea
- 3.- AGIPASE: Gipuzkoako guraso bananduen elkartea.
- 4.- AMPGYL: Gay, Lesbiana, Bixesual eta Transexualen Gurasoen Elkartea.
- 5.- ARNASA: Gipuzkoako Fibrosi Kistikoaren Elkartea
- 6.- ASPANIF guraso elkartea, euren umeak erbi ezpaindun edo ahosabai hautsiekin jaioak izaki eta, batibat, Euskal Herrian jarduten duena.
- 7.- ASPANOI: Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea.
- 8.- BANAIZ BAGARA: Euskal Herrian bizi diren etorkinekin euskara ikasteko moduak eskaintzen ditu.
- 9.- BEROA: Gipuzkoako harrera familien elkartea.
- 10.- BIHOTZEEZ: Kardiopatiadun haurren familien Elkartea.
- 11.- BIAK BAT: Elbarritasun bat duten lagunei eta gizartean bazterturik geratzeko arriskua dutenei laguntzeko txakurrak hezten ditu.

- 12.- CHERNOBILEN LAGUNAK: Ukraniako Doviria gizarte etxearekin lan egiten du Gipuzkoako elkarteak.
- 13.- NAIZEN : Naizen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adintxikiko transexualen familiak osatzen duten elkarte da.
- 14.- DRAVET : Dravet Sindromea dutenen Fundazioa.
- 15.- ETIOPIA UTOPIA: Wukron eta hedaduraz, Tigray eskualdean, garapenerako lankidetzan lagundu eta laguntza humanitarioa ematea duena.
- 16.- FSDPV: Euskadin down sindromea duten familien elkarte.
- 17.- GEHITU: LGTBI kolektiboaren berdintasun sozialaren alde lan egiten dute.
- 18.- GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA: Kirol egokituaren sustapena eta antolaketa Gipuzkoan.
- 19.- OPORRAK BAKEAN : Sahara herriaren alde lan egiten duen elkarte.
- 20.- GURE NAHIA: Gipuzkoako Gaixotasun arraroak dituzten haurren aldeko Elkarte.
- 21.- GURE SENÑ EAK: Bizkaiko Txorierrin gaixotasun arraroak dituzten haurren familien Elkarte.
- 22.- HIRU HAMABI: Garuneko kaltea jasan duten adin txikikoen familien elkarte
- 23.- JUNEREN HEGOAK: Ahultasun egoeran dauden eta haur gaixoak dituzten Gipuzkoako familiei laguntza sare bat eskaintzea eta, ahal den heinean, haiekin elkarlanean aritzea gaixotasunari edota doluari aurre egin diezaioten.
- 24.- KALE DOR KAYIKO: Ijito Kultur Elkarte.
- 25.- PAUSOKA ELKARTEA: Beharrian bereziak dituzten haurren gurasoak.
- 26.- SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA: ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzen du ikastoletan.
- 27.- UME ALAIA: Adopzio Familien Elkarte.

28.- ULERTUZ: Bizkaiko Lurraldean entzumen urritasuna duten neska-mutilei eta gazteei eta horien familiei laguntza zuzena sustatzen eta eskaintzen duen elkarte.

29.- ASPANOVAS : ASPANOVAS Bizkaia, Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartea

30.- SANFILIPPO UMEEN EUSKAL ELKARTEA : Euskadiko Sanfilippo haurren senide eta lagunok osatzen dugu. Gure helburua haurren eta familien bizi baldintzak hobetzea eta bidean aurkitzen dituzten zailtasunak gainditzeko laguntzea da.

31.- MINDARA ELKARTEA: MINDARAK jardun eremua Oarsoaldea eskualdean du (dibertsitate funtzionala duten pertsonak artatzeko Gipuzkoako elkarteak). Elkarateak sortze- helburu du aniztasun funtzionala duten pertsonen autonomia sustatzea, gizarte, gorputz, kirol eta jarduera osasungarrien bidez.

32.- SUPER HACHE ELKARTEA : Gaitz larria edo onkologikoa duten umeentzako eta ikerkuntzarako laguntza elkarteak.

33.- GUZTIOK: Beharrian bereziak dituzten Bortzirietako haurren gurasoak.

34.- NDANK-NDANK: Elkarate mistoa da, pertsona senegaldar eta euskaldunak osatuta. Helburu bikoitzarekin sortu zen elkarteak, kulturartekotasuna sustatzeko batetik, eta bestetik, Senegalen garapenerako lankidetzak bultzatzeko.

35.- NUALA ELKARTEA: Aniztasun funtzionala edo gaitasunen aniztasuna duten pertsona eta lagunak dira, irabazi asmorik gabeko elkarteak bat sortu zutenak. Beraien helburua pertsona horien ikuspena eta ongizatea bermatzea da. Inklusioa aktiboki promozionatu nahi dute gizartearen. Beraien seme-alaben gaitasunetan sistena dute eta gizartearekin partekatu nahi dituzte. Elgoibar eta inguruko herrietan aritzen dira gehienbat lanean.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako BAZKIDEAK:

Elkarateko kideak dira, urtean kuota bat ordaintzen dute oinarritzko beharrei erantzuteko, eta haien esku dago, gainerakoak entzunda, elkaratearen egiturak antolatu eta osatzea, eta urteko egitasmoa eta diru kontuak onartzea.

Bazkide izateko aukera dute Bizipozarekin kolaboratzen duten elkarateek eta edozein eratako gizarte eragileek. Betebeharren artean urtean 1000 euroko ekarpena egitea dute. Urteko kuotarekin batera, aukeratu dute bestelako ekarpena ekonomikoak egiteko aukera.

- Bizipozako elkarteen kasuan, zailtasun sozialak dituzten familiek eta gizarte-desabantaila egoeran dauden hurrei eta familiei laguntzeko elkarreek, hau da, izaera bereziko elkarreek hala nahi duten guztiak bazkide izango dira , eta urteko kuota bakoitzaren ahalmenaren arabera erabakiko da, gutxienez 200 eurokoa izanik.

Ondorengoak dira gaur-gaurkoz bazkide:

- Irrien Lagunak
- Katxiporreta
- Elkar
- Hik Hasi
- Ikastolen Elkartea
- AEK
- HUHEZI unibertsitatea
- Algaraklown
- Naizen elkartea.
- Aspanif elkartea
- Dravet elkartea
- Euskal Herriko Down Sindrome Federazioa
- Gehitu elkartea
- Gure Senñ eak elkartea
- Kale Dor Kayiko elkartea
- Pausoka elkartea
- Bihotzez elkartea
- Aspanovas elkartea
- Gipuzkoako kirol egokituaren federazioa

- Aspanogi elkarteak.
- Super Hache elkarteak
- Ndank Ndank

▪ **Ondorengoak dira gaur-gaurkoz Bizipozako BABESLEAK**

Bakoitzaren neurriko ekarpen ekonomikoa egiten diote proiektu osoari edo Bizipozarekin batera proiektu zehatz bat elkarlanean aurrera eramaten duten eragileak edo norbanakoak.

Norbanako babesleekin batera, ondorengoak dira gaur egun Bizipoza elkartearen babesle eragileak:

- Danobatgroup
- Orona
- Irizar
- Fagor
- Laboral Kutxa
- BBK Fundazioa
- Kutxa Fundazioa
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Maier
- Eusko Jaurlaritza
- Mondragon Lingua
- Ekonomisten euskal elkargoa
- LKS
- Ekin
- Kukai Dantza Taldea
- Athletic Club Fundazioa
- Real Sociedad Fundazioa

Eta hauekin batera ere, badaude norbanako babesleak ere, bakoitzak aportazio ekonomikoa egiten diona elkarteari.

▪ **Boluntarioak**

Norbanako boluntarioek, bere denbora eskainiz -Bizipoza jaian edo bestelako ekitaldietan lan bat eginez, elkarteen ekintzetan denbora eskainiz-, edota bestelako edozer emanez -ikastaro bat eman, emanaldi bat artisten kasuan, eta abar- hartzen dute parte elkartean.

Boluntario izateko aukera dute: norbanakoek

BIZIPOZAREN EGITASMO ILDOAK ETA 2020 URTEAN AURRERA
ERAMANDAKO EKIMENAK

Bizipozaren egitasmoak kontuan hartzen dituen egitasmo edo egitekoak:

1.-ELKARTEEN ETA HAIEK LANTZEN DUTEN ERREALITATEA
GIZARTERATZERA

○ **Irria aldizkariarekin elkarlanean ipuinak argitaratzea.**

2020 urtean, 8 elkarteren ipuinak argitaratu dira Irria aldizkarian.

Juneren Hegoak, Pausoka, Ndank Ndank, Aspanif, Hiru Hamabi, Super H, Aspanovas eta Guztiok elkarteetako ipuinak hain zuzen ere.

<https://bizipoza.eus/ipuinak/> orrialdean aurkitu daitezke ipuin guztiak.

○ **Bolondres sareko gizarte eragile eta norbanako desberdinekin batera ekintza desberdinak aurrera eramatea.**

- Lur eta Amets ETBko programan elkarteak presente . (iraila)

Lur eta Amets proiektuko marrazki bizidunak ETBn emititu ziren programa desberdinetan. Programa hauetan parte hartzeko gonbitea luzatu genien Bizipozako elkarteei eta bertan parte hartu zuten.

- Elkartasun aleak erakusketan presente. (Urria – Azaroa)

Gipuzkoa solidarioak antolatutako ekimenean parte hartu genuen. Informazio guztia hemen: https://www.gipuzkoasolidarioa.info/elkartasun-aleak-erakusketa/lang_EU

- Nerea Godoy-ren Bizipozaren begirada liburua (urria)

Nerea Godoy, San Filippo elkarteko eta Bizipoza elkarteko boluntarioak idatzitako "Bizipozaren begirada" liburuaren berri eman genion Bizipozaren komunitateari sare sozialen bidez eta email bidez.



- “Bizipoza Lasarte-Oriatik Lesbos-era” ekimena (abenduan)

Miren Bardaji lasarte-oriatarra Greziako Lesbos irlako errefuxiatuekin egiten ari den lana gizarteratu eta laguntzeko asmoz antolatu da egitasmoa. Horrekin batera, Bizipoza elkartearen barruan dauden elkarte ezberdinen aurkezpena egin da. Hainbat elkarteren mikrodokumentalak, testigantza zuzenak eta kultur ekimenak uztarturik sortutako ekitaldia izan da.

Infomazio guztia ondorengo loturan:

<https://txintzarri.eus/lasarte-oria/1607702981267-bizipozez-eta-elkartasunez-bete-dute-kultur-etxeko-areto-nagusia>



Ekimen bat antolatuko dugu
Lesboseko errefuxiatu
kanpamenduetan jasaten den egoera
ikusarazi eta salatzeko.

Helburu nagusia da Miren Bardaji
Maiza herritarra bertan aurrera
eramaten ari den lana gizarteratu eta
beharrezkoak dituzten baliabideak
lortzeko **diru bilketa** bat egitea.

Honekin batera, **Bizipoza** eta
Bizipozako elkartearen aurkezpenak
ere burutuko ditugu, elkarte hauetako
parte diren lasartearrekin batera.



NOLA LAGUNDU DEZAKEZU ?

- 1 Lasarteko dendetan eskuratu: "Munduak guztiontzat beharko luke" postala 5€-ko donatiboaren truke edo "Puntada solidaria"-k egindako poltxatxoak 2€-ko donatiboaren truke.
- 2 Ekitaldira gerturatu!

10
ABENDUAK

 19:00

 Manuel Lekuona
Lasarte-Oria



- **Bizipoza jaia.** (<https://bizipoza.eus/cases/bizipozaren-jaia-2019/>)

Jaialdi honen helburu nagusiak BIZIPOZA gizarteratzea eta ELKARTEEN lana gizarteratzea dira eta jaiaren oinarriak AUZOLANA, ELKARTASUNA, EUSKARA ETA BIZIPOZA baloreak izaten dira.

2020 urtean pandemia egoerak bultzatuta ezin izan zen Bizipozaren jaia urteroko moduan ospatu baina egoerari egokitutako Bizipozaren jaia ospatu da 2021 urteko martxoan Bergaran. Erantsitako dokumentuan aurtengo jaiari buruzko informazioa eta balorazioa ere.

<https://bizipoza.eus/bizipozaren-jaia/> orrialdean aurkitu daitezke jaiako argazkiak, bideoak, kartela....





○ **Dokumentala eta dokuweb-a**

2018 urtean Danobatgroup-ekin batera abiatutako proiektua eta 2019 urtean bukatu ziren sortze lanak. 2019 urteko urrian eman genion hasiera dokumental eta dokuwebaren aurkezpenei hiriburuetan eta eskualdez eskualde eta 2020 urteko otsaila bukaera bitarte luzatu da zabalpen prozesua. 2020an 13 aurkezpen burutu dira ondorengo tokietan: Hondarribia, Bergara, Hazparne, Ondarroa, Asteasu, Zarautz, Bera, Errenteria, Lizarra, Derio, Altsasu, Huhezi unibertsitatea eta Hernani. Proiektu honi buruzko memoria zehatza jasotzen duen “Memoria_Dokuweb eta dokumentala” dokumentuan aurki daiteke proiektu osoaren inguruko informazio zehatza.

2020ean aurkezpen saioak egitearekin batera (urtarrila eta otsailean zehar) , aurkezpenetan boluntario kanpaina ere zabaldu eta indartu da.



 BIZIPOZA
2020 MEMORIA



 BIZIPOZA
2020 MEMORIA



○ **MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT Kantu eta bideoklipak 1**



- MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT kantu eta bideoklipak, BIZIPOZA elkarte osatzen duten 11 elkarteentzako ekoiztutako lana da, 34 euskal sortzaileekin elkarlanean egina. Bertan 12 abestiz eta 11 bideoklipeiz osatutako CDa eta DVDa aurkitzen ditugu.
- 34 euskal sortzaileekin elkarlanean ekoiztu dugu.
- Honetaz gain, liburuxka formatuan eta elkarteen ilustrazio banarekin, bakoitzaren deskribapena, ipuintxoa eta abestiaren letra topatzen ditugu.
- Elkarteen eta euskal kultur sortzaileen arteko elkarlana da elkarteen kantu eta bideoklipen proiektuaren oinarri nagusia. 11 elkartek egunerokoan lantzen dituzten gaiak eta haien errealitateari buruzko abestiak eta bideoklipak dira, elkarte bakoitzaren mezua musika, hitza eta irudiaren bidez gizarteratzeko helburu dutenak.
- Hauek dira 2020 urteko proiektuan parte hartu duten elkarteak eta euskal sortzaileak:

ELKARTEA	IDAZLE/BERTSOLARIA	ABESLARIA
ASPANIF	Unai Iturriaga	Josu Zabala eta Iñaki Garitaonaindia “Gari”
GEHITU	Bihotz Gorospe	Yogurinha Borova
ASPANOZI-ASPANOVAS	Amaia Agirre	Eñaut Elorrieta
BIHOTZEZ	Nerea Ibartzabal	Xabi Solano
HIRU HAMABI	Julio Soto	Enrique Villarreal “El Drogas” eta Oihana Fernandez “Afu”
OPORRAK BAKEAN	Aner Euzkitze	Aitor Gorosabel eta Miren Narbaiza
INTEGRAZIO BATZORDEA	Amets eta Maddalen Arzallus	Amets eta Maddalen Arzallus
BIAK BAT	Leire Bilbao	Anabel Arraiza eta Mikel Urdangarin
KALE DOR KAYIKO	Arkaitz Estiballes	Itziar Ituño
ULERTUZ	Miren Amuriza	Aiora Renteria
BIZIPOZA	Igor Elortza	Pirritx, Porrotx, Marimotots eta diskoan parte hartzen duten abeslari guztiak
JOXE MARI AUZMENDIREN KANTUA	Joxe Mari Auzmendi	Andoni Tolosa “Morau” eta Maite Larburu



- <https://bizipoza.eus/kantu-eta-bideoklipak/> orrialdean aurkitu daitezke kantu eta bideoklip guztiak.
- “Mundu berri bat guztiontzat komunikabideetan” erantsitako dokumentuan komunikatiboki proiektuak izandako eragina eta elkarriketen loturak aurkitu daitezke.
<https://bizipoza.eus/berriak/> orrialdean ere aurkitu daitezke berriak.
- CD eta DVDa Elkar denda fisikoetan eta online dago salgai. Bestetik, Noticias de Gipuzkoa eta Berriak ere promozio bereziak egin dituzte salmenta indartzeko.
www.bizipoza.eus orrialdean ere salgai dago CD-DVDa.

○ **ARI! SORMENA ETA MUGIMENDUA PROIEKTUA**

Bizipoza, Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa eta Artaziak lehen aldiz elkartu eta 2019 urtean hasiera eman genion **Ari! Sormena eta Mugimendua** proiektuari. Proiektuak gorputzarekin, arteekin eta mugimenduarekin lotutako ekimen berritzaile bat sortzea du helburu, izaera inklusiboa eta genero ikuspegia izango duena, 12 eta 21 urte bitarteko gazteei zuzendua.

Egitasmoak **3 lan ildo** izan ditu eta 2020 urtean zehar garatu ditugu:

- 1) Lehenengoa **Ikastaro trinko bat izan da**, eta **Jordi Cortés** koreografo-sortzailea gonbidatu dugu bere ibilbidea azaldu eta dantza inklusiboaren esparruan izan duen esperientzia azaltzera.

Jordi Cortésekin ikastaro trinkoa

ARI!

sormena eta mugimendua



Gorputz-politikak / Artea eta Aniztasuna



Larunbata
Irailak 26
10:00-14:00

Dantzagunea
Pilotarien kalea, z/g
(Niessen eraikina)
20100 Errenteria

Pertsona bakoitza, gorputz bakoitza berezia da, bakarra, berezkoa, entitate psikofisiko jakin bat dauka, bere trazu anatomiko, fisiologiko, psikologiko, emozional, sexuarekin eta hortaz, adierazteko modu propioa-origina du, dantza eta mugimendu-arten bitartez.

Tailer teoriko-praktiko hau mugimendu eremuarekin eta eremu sozialarekin erlaziozko pertsonen zuzendua dago, diferentziarik eta bestearen berezitasunetik abiatuz sortzera gonbidatzen du, munduan kokatzeko gure modua birsortuz, erlazio-konexio mota berriak eratuz, gure gorputzen mugimenduaren bitartez.

Jordi Cortés dantzaria, koreografoa eta irakaslea da. 1a 30 urteko lan-ibilbidea duelarik, KIAKAHART, ALTA REALITAT Elkartearen eta LIANT LA TROCA dantza integratu/inklusiboko kolektiboaren sortzailea eta zuzendari artistikoa da.

Ikastaro hau Ari! Sormena eta Mugimendua proiektuaren barne kokatzen da, Bizipoza Elkarteak sustatua, Artaziak eta Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioaren lankidatzaren bitartez. Informazio gehiagorako: www.artaziak.eus/eu/proiektuak/ari-sormena-eta-mugimendua/

Izena emateko idatzi helbide honetara irailak 23 baino lehen. info@artaziak.eus



Antolatzaileak




Babesleak






- 2) Bigarren ildoan, **10 saio praktiko burutu dira**, 12 lagunek osaturiko talde mistoarekin. 12 eta 21 urte bitarteko gaitasun anitzeko gazte hauek, sormen laborategi gisa pentsatutako gunean mugimenduarekin eta gorputzarekin lotutako dinamikak landu dituzte.





- 3) Proiektuaren hirugarren atalak **material pedagogikoa** sortzea du helburu, aplikatu den metodologia jaso eta proiektuaren erreplikagarritasuna ahalbidatuko duena. Hirugarren atal hau 2021 urtean garatuko da eta 2021 urteko ekainean aurkeztuko da materiala.

Proiektu hau Irizar eta Orona Fundazioak babestu dute eta Errenteriako Dantzagunearen laguntza izan du.

Proiektuari buruzko informazio guztia: <https://bizipoza.eus/ari-proiektua/> orrialdean.

2.- ELKARTEEN ARTEKO EZAGUTZA ETA KOHESIOA

○ **Prestakuntza saio orokorrak denei begira: IV. JARDUNALDIA**

2020 urtean Bizipozako IV.Jardunaldia burutu dugu: “HAURREN ESKUBIDEAK JASOZ, JOSIZ, BETEZ...ELKARREKIN BIZIPOZEZ”

Peio Manterola EHuko ikasleak, bere master bukaerako lana Bizipoza aztertzeraz bideratu zuen eta hau izan zen jardunaldiaren oinarria. Pandemia egoera dela eta, lehen aldiz online bidezko jardunaldia burutu da.

Ondorengoak izan dira jardunaldia eta Peioren master bukaerako lanaren helburu nagusiak eta helburu espezifikokoak.

HELBURU NAGUSIA: Bizipoza egitasmoko elkarteko kideen ongizatearen, eskubideen oparotasunaren eta bizi duten egoeraren zergatiak aztertzea eta ulertzea eramatera.

HELBURU ESPEZIFIKOAK:

1. Elkarte ezberdinetako kideek eskubide unibertsalekiko eta bizi-kalitatearekiko jasaten dituzten egoeraren berri izatea eta elkarteek horien asepenean izan duten eragina aztertzea.
2. Hogeita hamabost erakundeei oraindik bermatzea gaitz zaizkien eskubide eta beharrak horiek integralki garantiza daitezen, elkarte barneko zein kanpoko zein eragileek esku hartu beharko luketen eta nola esku hartu beharko luketen aztertzea.
3. Elkarteek zein hauek osatzen dituzten kolektiboek kausa sozializatzeko edota inklusioa (onuradunen gizarte eta eskola inklusioa) lortzeko dituzten zailtasunak zein diren ulertzea.
4. Sozializazioa edota inklusioa lortzera bidean egiten dituzten ekimenak zein diren eta inklusioarekiko sumatzen dituzten gabeziez.
5. Bizipoza elkarteko elkargo ezberdinetan ikusitako beharrak eta premia hauen zergatiak holistikoki adieraztea .


BIZIPOZA

**HAURREN ESKUBIDEAK
JASOZ, JOSIZ, BETEZ...
ELKARREKIN BIZIPOZEZ!**
Online jardunaldia - Maiatzak 30 - 10:30

PEIO MANTEROLA
EHUko ikaslearen ikerketaren ondorioen aurkezpena

+ INTERBENTZIOAK:
MAIALEN ZABALBEASKOA Hiru Hamabi Elkarte
AMAIA ELIZONDO Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
LUISMA LANDALUZE Gure Señeak Elkarte
ELI DOMINGUEZ Ndank Ndank Elkarte
MIKEL AGIRREZABALA Hik Hasi Elkarte
EIDER LOPETEGI Aspanif Elkarte
NEKANE ARTOLA Ikastolen Elkarte
DEA SEVER Naizen Elkarte
JOXEMARI AGIRRETXE Katxiporreta

ALAIA MARTIN
bertsolariak
itxiko du
jardunaldia

Jardunaldi osoa ondorengo helbidean ikusi daiteke:

<https://bizipoza.eus/services/bizipoza-jardunaldiak-2020/>

3.- BIZIPOZA ELKARTE BERA INDARTZEKO, BAZKIDE BERRIAK ETA BOLUNTARIO

○ **Komunikazioa eta harremanak**

- Webgunea. <https://bizipoza.eus/>

2019an sortutako Bizipozaren marketing digital plana aurrera eramaten ari gara Sorland komunikazio agentziarekin batera. Sortutako plan honetan, aurrera begirarako estrategiak daude markatuak.

- Sare sozialak. 2020 urtean sare sozialetan presentzia indartuz goaz, Bizipozaren orria atsegin duen komunitatea haundituz. Asteroko lana izaten ari da sare sozialak elikatzearena. (Facebook eta twitter). Sare sozialetan, Bizipozak aurrera eramaten dituen ekimenak gizarteratzeaz gain, Bizipozako elkarteen ekimenak ere zabaltzen dira. Elkarateek ospatzen dituzten nazioarteko egunei ere indarra ematen diegu sare sozialen bidez, elkarte hori, gai hori, balore horiek indartuz. 2020ko urrian, Instagram kanala jarri dugu martxan.

- Komunikabideak. Pixkanaka, komunikabideen sarea ere indartuz goaz, urtean zehar komunikabide desberdinekin harremanak landuaz. 2020 urtean lanketa haundia egin da komunikabide desberdinekin, besteak beste, kantu eta bideoklipen aurkezpenaren harira. Bizipozaren webgunean aurkitu daitezke komunikabideetako lotura guztiak, ondorengo atalean: <https://bizipoza.eus/prentsa/> Erantsitako “Mundu berri bat guztiontzat hedabideetan” dokumentuan aurkitu daitezke kantu eta bideoklipen proiektuari dagokionez prentsan izandako elkarriketak.

- 2020 urtean zehar ere, eragile, kooperatiba, instituzio desberdinekin harremanak izan ditugu Bizipoza proiektua aurkeztuaz. (Errigora, Dantzerti unibertsitatea, Bergarako udala....)

Bazkidetza eta boluntario kanpainak

- **DANTZERTI DANTZA UNIBERTSITATEAREKIN ELKARLANA.**

Dantzerti unibertsitateko ikaskuntza-zerbitzua metodologiaren bidez, dantzako 2.mailako taldeak gizarte-premia desberdinei erantzuten dieten hainbat elkarte identifikatu zituen. Bizipoza eta Bizitegi elkarteekin bildu ziren abenduan, aurkezteko, bi elkarteak ezagutzeko eta arte eszenikoko jarrera solidarioak aktibatzeako. Ikasgaia: Taldeen eta erakundeen psikologia. Irakaslea: Alicia Gómez Linares.

Bizipoza elkartetik Amaia Elizondo eta Leire Elizegik hartu zuten parte.



- BIZIPOZTU ZAITEZ, IZAN BAZKIDE IZAN BOLUNTARIO KANPAINA

Azaroan, “Bizipoztu zaitez, izan bazkide izan boluntario” boluntarioak erakartzeko kanpaina berria abiarazi genuen. 2020 urtean, berrikuntza izan du kanpainak. Elkarte bakoitzak boluntariotza lanak burutuko dituzten lagunak zein lan konkretuetan aritzeko beharra duten azaldu digute eta horren arabera kanpaina egin dugu. Modu honetan, boluntariotza lanak burutzeko izena eman duten boluntarioak zuzenean elkarte zehatz batekin jarri dugu harremanetan.

Kanpaina hemen ikusi daiteke: <https://bizipoza.eus/bizipoztu/>

Urtarrila eta Otsailean zehar, dokumental eta dokuweb-aren aurkezpenak herriz-herriz burutzearekin batera, boluntario kanpaina indartu genuen aurkezpenez-aurkezpen eta herriz herri. Aurkezpen hauek ondorengo herrietan burutu ziren: Hondarribia, Bergara, Hazparne, Ondarroa, Asteasu, Zarautz, Bera, Errenteria, Lizarra, Derio, Altsasu, Huhezi unibertsitatea eta Hernani.

4.- BILBOKO EGOITZA

2020 urtean zehar Bilboko egoitzaren aurrera begirako erabileraren inguruko proiektua zehazten hasiak gara eta Uribarri auzoko eragileekin harremanak egiten hasiak gara.

2021 urtean Bizipozak hainbat gida didaktiko sortuko ditu eta lan hau aurrera eramateko, Bilboko egoitza hau izango da gida hauek sortuko dituen pertsonak lan egingo duen tokia. Beraz, 2021ean martxan jarriko dugu egoitza.

**ESKERRIK ASKOOO, ELKARREKIN ARI GARA GUZTIONTZAT BEHARKO LUKEEN MUNDUA
ERAIKITZEN!!!!**